



## Errota berrituan zabaldu dute Haur Liburutegia

**TOLOSA** ▶ Zerbitzuetan irabazi  
du: aukera berriak eskaintzen  
ditu eta modernoagoa da

**LEKUA** ▶ Haur Liburutegiak  
Errota zaharberrituaren lau  
solairuetatik hiru hartzen ditu ▶ 2



Leiho karratu handi baten parean komikiak irakurtzeko txokoa jarri dute; Santa Maria eliza bitarteko gunearen ikuspegi ederra du. N. LATABURU

### VILLABONA-ZIZURKIL ▶

**Berrogei  
lagun ari  
dira euskara  
ikasten**

Udalek herrian bertan  
euskara ikasi ahal  
izatea nahi dute ▶ 4

### ALTZO ▶



HITZA

**Giro onean  
ospatu dute  
Jubilatu  
Eguna**

Bazkaria, musika,  
dantza... izan ziren ▶ 5

### LEITZA ▶

**Oinatz  
Bengoetxea,  
txapelketan  
aurrera**

Lau t'erdikoan final-  
zortzirenetan da,  
Eulateri irabazita ▶ 7

### ALEGIA ▶

**Etzi ekingo  
diete euskal  
dantza  
ikastaroei**

A.K.O. aldizkariak  
antolatu ditu ▶ 5

### TOLOSA ▶

**Ttonttor elkarteak antolatutako  
Kultur Asteak aurrera darrai,  
ekitaldiz beteriko egitarauarekin**

Basamortuari buruzko proiektioa eskainiko du gaur Iñaki  
Edrosok; igandera bitarte, egunero izango da zer eginik ▶ 3

KULTURA ▶

# Eraikin eta zerbitzu berriak

Herriko Haur Liburutegi berriak ireki ditu dagoeneko ateak; Errota zaharberrian du bere egoitza

IMANOL GARCIA

Tolosako haurrek liburutegi berria estreinatu dute. Kokapena paregabea da: Santa Maria ondoko Errota eraberrituan. Eraikinak lau solairu ditu: goiko hirurak liburutegiak hartzen ditu, eta behekoan taberna-kafetegia egongo da. Ukitu batzuk falta baditu ere, aurreko ostiralean zabaldu zituzten ateak. «Haur liburutegia asko erabiltzen da, eta beharrezkoa zen irekitzea», dio Susana Larre arduradunak. Bera eta Lurdes Arrizabalaga izango dira liburutegiaren erabiltzaileei zerbitzua emango dietenak.

Lehenengo solairutik hiru garrenera hartzen badu ere, bigarren solairuan dago liburutegiaren sarrera. «Haurrek eraikinaren kanpotik dagoen eskailera erabiliko dute sartzeko», adierazi du Larrek. «Igo-gailua ere badago, oinez igo ezin dutenentzat edo haur-kotxea ekartzen dutenentzat». Igo-gailuak ez du zuzenean liburutegi barrura eramaten, baizik eta kanpoko eskailera amaitzen den lekuraino, hau da, sarreraraino.

Behin Errotaren barruan, harrerarekin egiten da topo. Bertan aurkitzen da lapurretaren aurkako sistema eta *checking-pass* kontadore berezia, bisiten estatistika egiteko. Herreran dago kokatuta mailegu zerbitzua. Bestalde, bi gela berezi ditu solairuak. Alde batetik, Txiki-Txokoa: 0-5 urte bitarteko haurrentzat dago pentsatuta, eta gurasoekin batera egon behar dute bertan. «Haientzat sailkatutako bilduma dute», dio Larrek. «Hala ere, esan behar da ez dela Txiki-Park bat modukoa, liburutegi bat da, eta aurrekusten dugu 15 bat mi-

nutu-edo egongo direla bertan». Bestea Irakur Gela da, 5 eta 7 urte bitartekoei zuzenduta. OPAC bat izango da solairuan ere, hau da, katalogoan begiratzeko ordenagailua. Komunak ere egokituak daude haurrentzako.

Lehenengo solairuan, zortzi eta hamasei urtekoentzako literatura dago. Bertan izango dira ordenagailuak ere, eta DVD-ak eta bideoak ikusteko aukera. «Guk aukeratuko dugu zer ikusiko den, ikusten edo eramaten ez diren filma onak sustatu nahi ditugu», dio Larrek. Hirugarren solairuan baliointzetarako gela dago. Bertan ekitaldiak egiteko aukera izango da: ipuin kontaketak, antzerki txikiak... Eta liburutegiarekin zuzenean ikusi behar ez duten ekitaldiak egiteko lekua izatea ere aurrekusten dute. Bestalde, leiho karratu handi baten parean komikak irakurtzeko txokoa jarri dute. Azken solairu horretan dago kokatuta ere biltegia.

Kanpoaldea ere leku berezia da. Eraikinaren ondoan egurrezko zorua jarri dute, antzepenak eta bestelako ekitaldiak egin ahal izateko. Bestalde, eraikinaren eta Santa Maria elizaren artean topatutako jauregiaren azternak daude ikusgai, hormen artean gelditu diren belar zatiak tarteko. Liburutegiko arduradunek espazio horien erabilpena ere sustatu nahi dute: «Liburutegia kanpora atera nahi dugu, mailegua jarriz kanpoan irakurtzeko edo antzeko aukera bat emanez».

## Modernizazioa

«Zerbitzuan irabazi du liburutegiak: aukera berrietan eta modernizazioan», dio liburute-



Komikien txokoa bista ederrak dituzte haurrek Errotaren eta Santa Mariako parrokiaren tartean. N. LATABURU



Errota zaharberria, elizaren aldetik begiratuta. I. GARCIA

giko arduradunak. Lehen eskaintzen genuena liburuak, bideoak eta DVDak ziren, baina mailegua ez zen automatiza-

tua. Orain, aurrekoez gain, CD-ak eta CD-ROM-ak utziko dira maileguan. Bestalde, mailegua automatizatuta dago eta, be-

raz, katalogoa izango dute erabiltzaileek kontsultak egiteko. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren sarearen baitan dago liburutegia. Horrela, sarearen barruan dauden liburutegi guztiko erabiltzaileek erabili ahal izango dute mailegu zerbitzua. Maileguari dagokionez, aipagarria da postontzia jarri dutela eraikinaren kanpoan. Erabiltzaileek maileguan dituztenak bueltatu ditzakete liburutegia itxita badago ere, edo ez dute harreraraino igo behar izango.

Lehen solairuko ordenagailuek hainbat zerbitzu eskainiko dituzte: Internet, ofimatika arloko programak eta CD-ROM-ak erabili ahal izango dituzte. «Lehen paperezko euskarrietan soilik zeukaten aukera kontsultak egiteko. Orain nahi dugu beste euskarri batzuetaz baliatzea informazioa bilatzeko», dio Larrek, eta gaineratzen du: «Gure helburua haurrak autonomoak izatea da, beraiek jakitea gauzak bilatzen, gero helduak direnean liburutegietan moldatu ahal izateko».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GIZARTEA ▶

## Udalak abian jarritako autoa partekatze foroa ikusgai

Ibilgailu partikularra beste herritarrekin konpartitzeko aukera ematen du zerbitzuak

I. ETXEBESTE

Tolosako Udalak orain aste batzuk jarri zuen abian autoa partekatze foroa bere web orrialdean, eta erantzun ona ari da izaten herritarren aldetik. «Foro horrek tresna izan nahi du ibilgailu partikularra beste herritar batzuekin konpartitu nahi dutentzat, bere eskaintza plazara ateratzeko», zioten ekimenaren sustatzaileek foroa martxan jartzerakoan.

Badira www.tolosakoudala.net webgunean hainbat eskaintza horren inguruan, eta eskaerak ere egin daitezkeela jakinarazi dute arduradunek. Izan ere, «besteen autoa konpartitu eta gastuak erdibana egin nahi dituztentzat» ere bada zerbitzu hori. Hala, «unibertsitatara, Reala ikustera, lanera... bakarrik joan nahi ez, eta bide-laguna aurkitu nahi dutenek web orrialdean beren nahia azaldu besterik ez dute egin behar».

HEZKUNTZA ▶

## Hirukideko Batxilergoko gurasoen bilera da gaur

I. ETXEBESTE

Hirukide ikastetxeko arduradunak ikasleen gurasoekin ikasturte hasierako bilera ari dira egiten urriaren hasieraz geroztik, eta gaur Batxilergoko ikasleen gurasoek dute hitzordua. Eskolapioen ikastetxeko areto nagusian izango dute batzarra, hain zuzen ere, eta 18:30ean hasiko dela jakinarazi dute Hirukideko arduradunek.

Horixe izango da ikasturte hasiera dela-eta antolatu dituzten bileretan azkena, gainerako mailetakoko ikasleen gurasoak honezkeroko bildu direlako Hirukide ikastetxeko irakasleekin.

KULTUR ASTEA ▶

# Basamortuari buruzko proiektzioa gaurkoan San Esteban auzoan

Iñaki Edrosok eskainiko du 'Ahaggar amets bat izan nuen' izeneko diaporama 20:00etatik aurrera; hilaren 23ra arte askotariko ekitaldiak izango dira, gehienak auzoko lokalean

IATXE ETXEBESTE

Joan den asteazkeneko XVIII. Herri Krosak eman zion hasiera Ttonitor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatutako XVIII. Kultur Asteari, eta hilaren 23ra bitarte, askotariko ekitaldiak izango dira auzoan. Gaur, adibidez, basamortuari buruzko proiektzioa eskainiko du Iñaki Edrosok: *Ahaggar amets bat izan nuen* izenburupean izango da diaporama emanaldia, 20:00etatik aurrera, San Esteban auzoko lokalean.

Hitzaldiak, lehiaketak, jolasak, kontzertuak... Era askotako ekimenak antolatu nahi izan dituzte aurtengoan ere antolatzailerik auzokide guztientzat. Haur, gazte eta heldu, guztiek izango dute aukera prestatutako ekimenetan parte hartuz une atseginez gozatzeko. Izan ere, helduekin eta gazteekin bakarrik ez, auzoko txikienekin pentsatuta ere antolatu nahi izan dituzte ekitaldiak Ttonitor Auzokide Elkarteak kideek: esate baterako, altxorraren bila, haur jolasak, buruhandiak eta txokolate jatea izango dituzte larunbat arratsaldean.

Igandeko ekimenekin amaituko da aurtengo Kultur Astea. Ohiko moduan, auzokideen arteko bazkaria eta ondorengo dantzaldia izango dira aste osoari bukaera emango diotenak. Aurretik, ordea, diana, meza, toka txapelketa... asko eta asko izango dira 09:00etatik bazkalordua bitarte auzotarrak egin ahal izango dituztenak.

Bestalde, atzo alkatearekin berriketan aritzeko aukera izan zuten San Estebanera hurbildu zirenek, eta Jokin Bildarratzek herriko hainbat proiekturen inguruan egin zuen solas, bai eta auzoan egitekoak dituzten egitasmoei buruz ere. *Auzoari geroza begirada* zuen izenburua hitzaldiak, eta horretantxe aritu ziren alkatea eta auzokideak: epe laburrean San Esteban auzoak izan ditzakeen aldaketaz eta auzotarren beharriaz, kasu.



Altxorraren bila aritu ziren iazkoan ere San Esteban auzoan. HITZA

EGITARAU ▶

Hauek dira San Esteban auzoan egunez egun eta orduz ordu izango diren ekitaldiak banan-banan zehaztuta:

**GAUR**  
20:00. Diaporama: *Ahaggar amets bat izan nuen*, Iñaki Edrosoren eskutik. Basamortuari buruz.

**BIHAR**  
19:30. Hitzaldia: *Gaur egungo zizak*, Aranzadiko Mikologia sailaren eskutik.  
22:00. Joneren kantaldia.

**ETZI**  
19:00. III. Patata Tortila Lehiaketa. Ondoren, lunch-a.  
22:30. Antzerkia: *El fin es asi* antzezlanaren Teartoren eskutik.

**OSTIRALA, 21**  
23:00. Kontzertua: ADN Fuzz, Afrikako perkusio ikuskizuna.

Ondoren, DJ Talo eta Aritz Sound System.

**LARUNBATA, 22**  
16:00. Altxorraren bila.  
16:00. Mus txapelketa.  
16:30. Haur jolasak.  
18:00. Buruhandiak.  
19:00. Txokolate jatea.  
00:00. Kontzertua: Batuketäo euskal samba taldearen emanaldia. Ondoren, Lord Sassafra.

**IGANDEA, 23**  
09:00. Diana herriko txistulariekin.  
10:00. Trikitixa auzoko baserrietan.  
11:00. Meza auzoko hildakoan alde, San Frantzisko elizan.  
12:30. Toka txapelketa gizonzkoentzat eta emakumezkoentzat.  
14:30. Auzokideen bazkaria. Ondoren, dantzaldia Algara orkestrarekin.

GIZARTEA ▶

## Topaguneak eskalatzera joateko deia egin berri du

Iruñeko Rokopolisera joango dira hilaren 22an; izen-ematea zabalik dago jada

I. ETXEBESTE

Tolosako Gazteria departamentuak antolatuta, Iruñeko Rokopolisera eskalatzera joateko aukera izango dute herriko gaztetxoek hilaren 22an. Topaguneko hezitzaileekin. 15:00etan abiatuko dira egun horretan Triangulotik, eta 19:30-20:00ak aldera itzuliko dira leku berera. Irteerara joan ahal izateko izena eman behar da Topagunean, 943 67 03 83 telefono zenbakian edota topatolosa@euskalerrria.org helbide elektronikoan. 15 euro ordaindu behar dira, eta arropa erosoan eramane behar da.

TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Gipuzkoako herriak bizirik: AHTrik ez

AHT egitasmoaren inposizioa gaitzesteko Aldarrikapen Gunea antolatu da, urriaren 13tik 21era bitartean, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Ekimen horretan, hainbat erakunde, gizarte mugimendu eta herritarrak parte hartzen ari dira. Hilaren 13an, Lakuan, AHTren proiektuak kalteatutako Gipuzkoako udalerrietako zenbait zinegotzi eta alkatek lehen txanda hasi genuen, hainbat bizilagunekin batera. Ondoko lerroetan laburbildu nahi ditugu udalgintzaren ikuspegitik AHTren egitasmoari ezetz eskateko arrazioak eta gogoetak.

Ingurumenari, nekazaritzari, ekonomiari, lurralde orekari, eta, ondorioz, gizarte osoari, hainbeste kalte ekarriko liokeen AHTren aurka gaude. AHT

gelditu, bai, trazatuak hondatuko lituzkeen Gipuzkoako udalerrietako agintari eta herritarroi proiektua «denen intereserako» dela esanda inposatu nahian dabilzako. Baina, non dira udalen eskubiak? Non udalen eskuduntza? Udalek badauzkate tresnak gerokoa biztanleen eskuhartzearekin arautzeko. Arau subsidiarioak, kasurako; horietara biltzen da udallerrien antolamendua. Eta udaletatik errespetua exijitzen diegu goiko administrazioei, Eusko Jaurlaritzari batez ere, bera delako gaur egitasmoaren bultzatzaile sutsuena. Errespetua udalek erabakitako udal araudietan ez dagoelako AHTrentzako tokirik. Udalen esku-hartzea saihestu egiten da, udal eskumene galera gehiago gauzatu. Udallerriek lurra, ura, haize freskoa... era horretako baliabideak eman behar dituzte, aurka agertzeko aukera izan gabe, «denen interesa» jaun

eta jabe. Eta hortxe daukate, eduki beharko, udalek giltza: udalak bere udallerriaren gaineko burujabetasuna agertuz, udallerriaren eragin fisiko izanagotzen duten azpiegituren harira beto ahalmena exijitu eta gauzatu, proiektu ofizialak aldatzeko edo bertan behera uzteko bada ere. Asmo honek demokrazia ulertzeko beste bide bat dakar, Udalaren boterea eta bizilagunena indartuz, betiere lurraldearen defentsan.

Gainera, AHT proiektuaren inguruan erakundearen desinformazioa nozitzen ari garela ere salatu nahi dugu. Datuak isildu eta informazioa ezkatuzten digute. Nola justifika dezakete ingurumenean nahiz gizarte arloan ondorio larriak eragingo lituzkeen AHT proiektuaren aurrean erakusten duten arduragabekeria, urteetan jendeak AHT gelditze hainbat arlotan aurrera eramandako borroka trinkoa eta arrazoi-tua kontuan hartuta? Zer egi-

ten dute AHTren inguruan herritarrek informazio garbia eta objektiboa jaso dezaten?

Ez dute lotsarik, «garapen iraunkorraren» moztorpean AHTren proiektua zuzitzeko, egia oso bestelakoa eta justu kontrakoa izanda. Tokiko Agenda 21 bezalako planak sentsibilizazio hutsean geratu ez daitezke AHT gelditzea aldarrikatu behar dugu, jasanezintasunerako tresna delako. Eta udal agintari eta herritar garen aldetik berretsi egiten dugu udal eta bailaren nortasunari eta zentzuzko garapen sozio-ekonomiko eta sozio-territorialari bertatik bertara eusteko konpromisoa. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren aurrean agertu garen zinegotzi eta alkateok AHT egitasmoak, lehendik datorren bide okerrean gero eta gehiago sakontzea eta iraunkortasuna izan daitezkeen horretatik, gero eta gehiago urruntzea dakarrela sinestuta ere, udalak eta herritarrak,

AHT Gelditu! Elkarlanean antolatzen jarraitzea premiazkoa ikusten dugu, AHT egitasmoa gelditzea eta garapena, sozio-ekonomikoan eta sozio-territorialean, beste modu batean ulertu behar delako, udallerriak eta bailarak oinarri. Nahitazkoa deritzogu AHTren inguruan eztabaida eta oposizioa hedatzen segitzeari. Zeregin ezinbestekoa dugu, desarrollismoaren eragin suntsitzaileak geldiarazi eta egungo garraio eta gizarte eredu xahutzailera aldatuko badugu. AHTRI emango zaion erantzun honetan bateratzea garrantzitsua da. Hortaz, AHT Gelditu! Elkarlanak deituta urriaren 22an Bilbon, 17:30ean, Jesusen Bihotzaren plaza-tik abiatuta egingo den manifestazioarekin bat egin eta parte hartzea dei egiten dugu.

ARANTZA ABURUZA (ADUNAKO ALKATEA) ETA JOXE RAMON IRAUSTABARRENA (ALEGIAKO HAUTETSIA) ▶ ADUNA-ALEGIA

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶ EUSKARA

## Euskara ikastaroak, herrian bertan

Guztira, 40 lagunek hartuko dute parte eskoletan, lau taldeetan banaturik

## ERREDAKZIOA

Euskararen aldeko erronkari eutsi nahi izan diote beste urte batez Zizurkilgo eta Villabonako udalek. Udal Euskaltegiaren hutsuneari aurre egiteko, beraz, euskara zerbitzuek ikastaroak antolatu dituzte. Lau euskara ikasle talde sortu dira guztira bi herri hauetan: bi hasierako urrats, bigarren mailako bat eta laugarren mailako beste bat. Guztira, berrogei lagun inguru elkartuko dira ikasturte honetan Villabonan eta Zizurkilen euskara ikasten, gehienak bertako herritarrak,

baina baita inguruko herrieta-ko ikasle gutxi batzuk ere. Euskara zerbitzuak jakinarazi duenez, gainera, izena ematera joan ziren herritarrak laurogeitik gora izan ziren, eta azkenean «lau talde sortu ahal izan dira».

Villabonan Udal Euskaltegia itxi zenez geroztik euskara zerbitzuak hainbat deialdi egin ditu euskara ikasleak euskara ikastera animatzeko eta, ahal izanez gero, ikasle taldeak herrian bertan sortzeko. Ahalegin honen fruitu ia hasiera urratseko ikasle talde bat elkartzea lortu zen Villabonan.



Lehenengo eta bigarren urratseko ikasleak hasi dira dagoeneko ikasturte berriarekin. HITZA

Aurtengoan, berriz, Villabonak eta Zizurkilek elkarrekin egin dute euskara eskolen eskaintza, eta emaitza «oso pozgarria izan da», iazko bederatzik ikasleko taldeetik aurtun berrogei lagun biltzera igaro baita. Joan den urtean abiatutako bideri eutsiz, AEKtik etorriko dira irakasleak eskolak ematera. Herritarren artean, beraz, egon badago euskararen aldeko apustua egiten duenik.

## Urrats guztientzako aukerak

Euskaltegirik ezean egoitza ezberdinetan barreiatu behar

izan dute euskara taldeok: goizez, 10:00etatik 12:00etara, hasiera urratseko talde bat elkartzen da Zizurkilgo Kultur etxean eta, ordu berean, Villabonako Kultur Etxeko gela batean elkartzen da iazkoari jarraipena eman dion bigarren urratseko taldea. Ilunabarretan, aldez, Jesusen Bihotza ikastolaren Txermineko bi gela erabiltzen dituzte, 19:00etan hasi eta 21:00ak arte, hasierako eta laugarren mailako bi taldeek. Laugarren urratsekoak ez beste guztiak hasiak dira jandantik eskolak hartzen eta, beraz, azken orduan beste nor-

baitek animatu nahi balu euskara ikastera, «azkar mugitzea» gomendatu dute. Horretarako nahikoa da Villabona edo Zizurkileko Euskara zerbitzuetara jotzea.

Lau talde hauek osatu ondoren, zerrendetan izena eman zuten jatorri atzeritarrak duten herritarrekin AISA talde bat sortzeko ahalegina egitea izango da orain hurrengo helburua. HABEK jartzen dituen baldintzen arabera, hamar lagun behar dira horrelako talde bat sortzeko, ordutegian bat etorriko diren hamar lagun, hain zuzen ere.

## iragarki laburrak ▶

## AURKUTUTAKOAK

**Zakurra.** Zakur bat aurkitu da Montezkuen. Euskal Artzaina nahasketa, marroia, lepoko marroiarekin, 4 bat hilabetekoa. Galdu duenak dei dezala 943 65 00 30 zenbakira (Koldo).

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Bertsolaritzaren etorkizuna nola ikusten duzu? Hau da gure webgunean planteatzen dugun galdera. Sartu eta eman zure iritzia.

## ALTZO ▶ JUBILATU EGUNA



Herriko gazteboek dantzaldi polita eskaini zuten. HITZA



Mañukorta eta Zeberio bertsolariek emanaldia egin zuten. HITZA

# Giro onean ospatu dute herritarrek Jubilatut Eguna

Goizetik hasita, Meza Nagusia, dantza emanaldia, bertsolariak eta trikitilariak izan ziren gozagarri; ondorengo bazkarira ere altzotar asko animatu zen

MARTA SAN SEBASTIAN

Urtero bezala, Jubilatut Eguna ospatu zuten igandean Altzon. Askotan izan ziren prestatutako ekitaldietan parte hartzera animatu zirenak, eta giro ederrean pasatu zuten eguna herriko jubilatuek.

Goizetik hasi eta Andra Mari parrokian Meza Nagusia izan zen eguneko lehen ekitaldia. Ondoren, herriko gazteboek dantza saio polita eskaini zuten herriko enparantzaren.

Dantzaldiaren ostean, plazan bertan bertsolariek bazkari aurrea animatzeko saiakera

egin zuten. Eta halaxe izan zen; Mañukorta eta Zeberio bertsolariek giroa piztu eta bazkari-rako tartea bete zuten. Ondoren, Arandia jatetxean bazkari oparua izan zuten aurretiaz izena eman zutenek. 22 lagun bildu ziren, eta hauei bertsolariak gehitu zitzaizkien. Gainera,

Udaleko ordezkariak ere izan zen bazkarian: Maria Pilar Zubiarra Altzoko alkatea eta Pilar Unsain Ongizate zinegotzia ere bertan izan ziren. Bazkari menua bikaina izan zen: sarrerakoak, salda, xapoa, azpizuna eta postrea izozkiarekin dastatu zituzten elkartutakoek. Bazkalondoa, berriz ere bertsolarien txanda iritsi zen, eta bigarren saioa eskaini zuten. Ondoren, Xapre eta Zaharra trikitilarien doinuek alaitu zuten arratsaldea.

## Pilota partidua

Urtero saninazioetan pilota txapelketa herrikoia egiten dute Altzon. Aurten, euria zela eta, hirugarren partida bertan behera geratu zen, eta egun berezi batera atzeratzea pentsatu zuten. Hasiera batean, Jubilatut Egunean jokatzekotan ziren. Hala ere, azkenean bigarren aldiz atzeratu da San Inazio jaietako hirugarren partida hori. Oraingoan, egun zehatza ez da ezagutzen, baina laster jokatzea espero dute.



Herriko jubilatut ugari animatu zen eguneko ekitaldietan parte hartzera. HITZA

## ALEGIA ▶

## Dantza ikastaroa aste honetan hasiko da

M. SAN SEBASTIAN

Dantza ikastaroaren nondik norakoak antolatzeke bilera irekia egin ondoren, aste honetan hasiko da A.K.O. herri aldizkariak antolatzen duen dantza ikastaroa.

Saioak ostegunetan izango dira, eta aste honetan bertan izango da lehenengoa. 20:30ean finkatu dute hasiera ordua eta lekua, aldiz. Alegiako Kultur Etxea izango da. Irakasleari dagokionez, iazko bera izango da; Oinkari dantza taldeko Garazi. Lehengo urtean bi irakasle izan zituzten; aurten, aldiz, bakarra izango dute. Egindako bilerara azaldu ez arren, interesa duen edonork parte har dezake oraindik.

## ALEGIA ▶

## Txintxarri Eguneko bazkarirako txartelak

M. SAN SEBASTIAN

Alegiako Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak hilaren 23an egingo du Txintxarri Eguna. Bazkarira joateko asmoa duenak, bihar arte izango du txartela erosteko aukera. Honez gain, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak kide direnak eta ez direnak joan daitezke ohartarazi dute antolatzaileek. Alegiako Txintxarri jatetxean izango da bazkaria. Txartel bakoitzak 30 euro balio ditu, eta Kafe Letamendian, Jubilatutuen tabernan eta Landa Enea kafetegian lor daitezke.

hitza **txokoa** <sup>lagunen</sup>

# Egin zaitez harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

<b>Emakumezkoen Ohorezko Maila.</b>	Aurrera-Saiaz-Ikaskirola	22-7	8. Laudio Sall.	12 puntu
Hegoalde Tolosa-Soto del Real	4-1	<b>Seniorrak</b>	9. Elgoibar	12 puntu
<b>Nazional Maila A.</b>	Aurrera-Saiaz-Hernani	10-22	10. Lagun Onak	11 puntu
Muriedas Urrutia-Ibarra	5-7	(Garikoitz Galarraga)	11. Eibar	10 puntu
<b>Emakumezkoen seniorrak.</b>	Ozkabi-Aurrera-Saiaz	22-10	12. Aurrera Vitoria	10 puntu
Laskorain-Tinta	6-4	(Ugaitz Renobales-Jabi Oteiza)	13. San Pedro	10 puntu
<b>1. Maila.</b>	Intxaurren-Aurrera-Saiaz 1	18-22	14. Amorebieta	10 puntu
B. Legorreta-T. Lakuntza	4-3	(Unai Aspe-Ruben Zapirain)	15. Zamudio	9 puntu
		Beloki 1-Aurrera-Saiaz 2	16. Santurtzi	9 puntu
		(Mikel Olaetxea-Iker Huarte)	17. Aurrera O.	7 puntu
		Ilunpe 2-Aurrera-Saiaz 1	18. Indaubu	5 puntu
		(Axier Telleria-Ion Orbegozo)	19. Getxo	5 puntu
		Eibar-Aurrera-Saiaz 2	20. Salvatierra	3 puntu
		(Igor Aranzabe-Ioseba Senperena)		

ESKUBALOA

<b>Jubenilak.</b>				
Bergara-Tolosa	30-24			
<b>Seniorrak.</b>				
Urola B-Tolosa	19-24			

PILOTA

<b>GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO</b>	<b>FUTBOLA</b>
<b>TXAPELKETA</b>	<b>Hirugarren Maila.</b>
<b>Kadeteak.</b>	Tolosa-Indaubu
Gazteleku-Aurrera-Saiaz	0-0
(Matin de la Sobilla-J. Etxeberria)	
Andazpe-Aurrera-Saiaz	
(Iñaki Urkizu-Luis Angel Zubin)	
<b>Jubenilak</b>	
5. Arenas	13 puntu
6. Beasain	13 puntu
7. Tolosa	12 puntu

1. La Salle	13 puntu
2. Ordizia B	11 puntu
<b>3. Tolosa B</b>	<b>9 puntu</b>
4. Munibe	8 puntu
<b>5. Inburre</b>	<b>8 puntu</b>
<b>6. Amaro</b>	<b>7 puntu</b>



Hegoaldeko jokalaria, artxiboko irudian. J. SAIAR

7. Axular	5 puntu	Billabona-Beti Gazte	2-3
8. Lasarte Oria	4 puntu	Oiartzun-Inburre	4-0
9. Lazkao	1 puntu	Umieta-Tolosa	2-2
<b>Jubenilen Nazional Maila.</b>			
Danok Bat-Tolosa	5-2	<b>FUTBOL 7</b>	
<b>Jubenilen 1. Maila.</b>		<b>3. Maila D.</b>	

Caravanas Tolosa-Metalicas Oleta	11-0
<b>1. Maila A.</b>	
Ibarrako Gazte Asanblada-B. Ignacio-Hondarrabia	3-3
Pub Oasis-Continental Industrias	0-2

SASKIBALOA

<b>Maila Interautonomika.</b>	
Asti Leku Tolosa Aralar	56-58
<b>Sailkapena ▶</b>	
1. J.F. Ceramicas	
2. Santurtzi	
<b>3. UPV Alava</b>	
4. Gernika	
5. Asti Leku	
6. Tolosa Aralar	
7. Ventanas Leon	
8. Ibaizabal	
9. Leihok Zarautz	
10. Saileko	
11. Leioa Artea	
12. La Salle	
13. Patronato	
14. Sugarak Laudio	
15. Jarrileros	
16. H. Ciudad de Haro	

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# «Ederki merezitako», garaipena Ibarrentzat Muriedas taldearen aurka

Ibarrak maila ona erakutsi zuen eta ia partida osoan aurkariaren gainetik egon zen; entrenatzaileak amaieran egindako aldaketa oso baliagarria izan zen

IÑIGO TERRADILLOS

Kantabrian (Espainia) jokatu zuen Ibarrek larunbatean, Muriedas taldearen aurka, eta ibartarrek «ederki merezita» lortu zituzten 3 puntuak Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak azaldu bezala, izan ere, ia partida osoan aurkariaren gainetik aritu ziren.

Ibarrak bere lekua ezin topaturik hasi zuen partida, segurtasunik ezarekin defentsan eta erasoari begira jokaldietan asmatu gabe. Horrela, 4. minutuan kantabriarrak aurreratu ziren markagailuan; Muriedasek ateratako kórner batetik iritsi zen gola, baloiak Landerrren eskuetan jo ondoren epai-

leak penaltia adierazi baitzuen. 6 zenbakidun Antolin izan zen baloia sare barruan sartu zuena. Gol horrek Ibarra berpiztu zuen, eta pixkanaka partida bere gain hartu zuten ibartarrek.

12. minutuan jokaldi polita gauzatu zuen Ibarrek talde lanean, eta Sinoe izan zen azken pausua eman zuena, gola sartzearena, alegia. 1-1eko markagailuarekin talde piparreroa zen jaun eta jabe, baina atearen aurrean ez zuen asmatzen, jaurtiketa guztiak desbideraturik eta saretik urrun amaitzen baitzuten. Atsedenaldira emaitza horrekin iritsiko zirela ziruedienean Muriedaseko 7 zenbakidun Lorenzo jokala-

riak Zabaloren aldaratzeaz baliatu, eta 2-1ekoa egin zuen. Etxeko taldea aurretik zela, beraz, iritsi ziren atsedenaldira. Atsedenaldiran, ez zela maila ona eman eta Ibarra gehiagorako gai zela zioen jendeak, eta hala egiten bazuen erraz garaitu ahal izango zuela talde kantabriarra.

Eta horrela izan zen. Ibarrek asko hobetu zuen bere jokoa bigarren zatian, eta hasierahasieratik nabaritu zen hori. Markagailuan ere nabaritu zen hobekuntza hori; 3. minutuan talde lanean buruturiko jokaldibatean Hautsik eman zion baloiari sarerako bidea, partida berdinduz. Minutu bat baino ez zen igaro Ibarren aldeko pe-

MURIEDAS ▶ 5

IBARRA ▶ 7

**Hasierako bostekoa.** Igor Zabalo; Lander Camio; Unai Labaka; David Prados; Hautsi Izagirre.  
**Aldaketak.** Mauro Ayerza; Uztaritz Errondosoro; Sinoe Sanz; Mikel Sanz.

naltia etorri zenean; Prados izan zen jaurtiketa egiteko ardur hartu zuen, eta ez zuen hutsik egin. 2-3 jarri zen markagailua, eta Ibarra maila ona ari zen erakusten; garaipenarekin bukatu zutenaren itxura hartzen ari zen.

Berriro ere, ordea, buelta eman zuen markagailuak, eta defentsan egindako huts egite baten ondorioz kantabriarren gola iritsi zen. Alboko sakez iritsi zitzaion baloia 3 zenbakidun Rauli, eta honek buruz ibartarren sarean sartu zuen. 3-3koa zen. Halaber, jokalaria hori izan zen 29. minutuan bere taldea aurretik jarri zuena, kasu honetan zuzeneko falta baten bidez.

6 minutu geratzen ziren partida amaitzeko eta Unai Labakak buruturiko bakarkako jokaldiak fruituak eman zituen, 4-4koa egin baitzuen. Jokaldi horren ostean, ordea, eta berriro ere Muriedaseko 3 zenbakidun Raulek aurretik jarri zuen bere taldea penalti bikoitz baten bidez. Une horretatik aurrera Cesar Roca entrenatzaileak, ausardia askorekin, atezaina aldatu eta Sanz jarri zuen atezain jokalaria moduan. Horrela, Labakak berdinketaren gola egin zuen segituan, eta jarraian Hautsi izan zen 5-6koa gauzatu zuena. Kantabriarrak golaren bila itsu-itsuan jarri ziren, eta ibartarrek baloia lapurtu eta berriro Hautsik alde handitzea lortu zuen. Lan handia egin ondoren, beraz, Ibarren geratzen dira 3 puntuak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Andoain.** Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela eta sukalde handiarekin. Oso argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.  
**Ikaztegieta.** Etxe atxikia lur sailarekin salgai. Egoera paregabea. 54.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Irura.** Aukera paregabea! Bizitzera sartzeko moduan dagoen

etxebizitza salgai 32.000.000 pezetat. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Larraul.** Etxe atxikia salgai. Azkena geratzen da. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Tolosaldea.** Baserria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Tolosaldea.** Aukera ezin hobea. 100 m2 dituen etxebizitza ederra

salgai. 34 m2-ko garajearekin. Berria bezala. Etxesagasti. 943 69 68 56  
**Villabona.** Berrikuntza. 2 logela dituen etxebizitza salgai. Eraiki berria. Ezin egokiagoa. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabekoa. Trastelekuarekin eta garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Zizurkil.** Eraikuntza berria. 113 m2

dituen etxebizitza paregabea salgai. Trastelekuarekin. Etxesagasti 943 69 68 56.  
**Eskaera handia** dela eta, etxebizitza, bakarkako etxek, baserriak eta nekazal beha hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean. Etxesagasti. 943 69 68 56.



LEITZA ▶ FUTBOLA

# Baloiak atean sartu nahi ez duenean...

## Azkenik berdinketa lortuta, Agoitzen 1 eta 1ekoa egin du Aurrera taldeak

JAIONE ASTIBIA

Gol aukera asko sortuz, zelaian nagusitasuna erakutsiz, baina baloiak sarera sartu nahi ez duenean... Izaten dira horrelako egunak ere, eta jardunaldi honetakoan halaxe suertatu zaio Aurrera futbol taldeari.

Agoitzen, partidua hasi eta 20. minuturako 1 eta 0ekoa egin zuten haiek, eta handik aurrera emaitzari eustea beste helbururik ez zuten izan agoizkoek, defentsa lanak eginez, beren atearen inguruan sartuta. Baina hor aritu ziren ekinean leitzarrek, erabat aurkariaren zelaierdian sartuta, babes-hesia zulatua nahian, gol aukera garbiak eta asko, gainera, sortuz, jokoa erakutsiz eta nagusi izanez, baina baloia sareetara botatzeko garaian, asmatu ezinik: edo gutxigatik kanpora botaz, edo jaurtiketa atezainaren eskuetara eginez, edo zuzenean zutoinera ateraz... «Aukera asko sortu genituen, baina asko, baina, ez asmatzen», zioten taldean atzo.

Halako batean, ordea, jada deskontuko garaian zirela, falta baten zuzeneko jaurtiketarekin etorri zen gola, berdinketarena, Jabi Urtigak egindakoa. «Baina irabaztea merezi ge-



Aurrera, aurreko batean. J. A.

nuen eta oraindik ere, epaileak ziztua jo baino segundoak lehenago, beste aukera garbi-garbi bat izan genuen», baieztatu zuten, nonbait azken jaurtiketa atezainaren eskuetara zuzenean egin zuten.

Azkenik, banako berdinketarekin itzuli ziren etxera: «Emaitza ona da, kanpoan jokatu eta berdintzea ongi dago, baina atera bota genituen baloi guztietatik ale batzuk sartu balira... Aise irabazteko modukoa izan zen, baina halako egunak ere izaten dira eta», adierazi zuten.

Hurrengo asteburuan atsedena egokitzen zaio Aurrera taldeari eta ez du partidurik jokatu. Berriz azaroko zubian zelairatuko da, orduan Arkixikelen, eta Beti Kozkorren aurka.

LEITZA ▶ GIZARTEA



## Elastikoak koloreztatzen eta margotzen

J. Astibia ▶ Larunbat honetan lantegi horretan aritu ziren Ateka Beltzan: elastikoak tindatzen eta gustuko marrazkiez hornitzen. Gaztetxeokok deituta, adin desberdinetako parte-hartzaileak izan ziren bertan, eta erakusten ari zenari adi,

pausoak nola egin galdetuz eta erlojuari errepertatuz, kolore biziz, zein horretarako propioa den margoz, nahi bezalako irudiak egin zituzten, batzuk txukunago, besteak zehatzago... Moda berria ezarriko dute negurako! J. ASTIBIA

LEITZA ▶ PILOTA

## Oinatz Bengoetxea final-zortzirenetan da, lesioaren ondoren plazaratuta

### Eulateri 22-19 irabazita, Agirre izanen du hurrengo arerioa

J. ASTIBIA

Bengoetxea VI.a larunbatean kantxaratu zen Labriten berriz behatza hautsita egon ondoren, eta Eulateren aurkako, 22 eta 19ko emaitzarekin irabazi egin zuen, Lau t'erdiko

Txapelketako final-zortzirenetarako txartela lortuz.

Leitzarra 2-0 irabazten hasi bazen ere, Eulatek 3-7raino egin zion ihes, eta partiduari buelta emanen bazion, lana egin behar izan zuen. Gogorra izan zen; sakeetan ere biek as-

matu zuten, tanto dezente eginez, baina aldea erretoan egon zen, eta Eulatek huts dezente egin zituen. Markagailua hala era estu joan zen. Garai-pena Oinatz Bengoetxearentzat izan zen. Agirre izanen du aurkari hurrengoan.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Fax: 943 65 09 44  
e-mail: enia@innoenia.com  
www.innoenia.com

**Larraul.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. Zoragarria!

**Alto.** Etxe bifamiliarr ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak dituena.

**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko

etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.

**Ibarra.** San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua.

Estreinatzeko!

**Ikaztegieta.** Etxe abikia salgai.

**Lorategi eguzkitsuarekin.**

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzaren jartzeko moduan. 237.400 euro.

**Tolosa.** San Esteban Auzoa. 3 logela.

Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berrieta.

**Tolosa.** Zuberua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxebizitza polita salgai. Erabat berrieta. Igogailuarekin eta berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin. Guztiz berrieta. Trastelekuarekin.

Aukera paregabea!

**Tolosa.** Larramendi. 96 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: garajea, komuna eta txokoa.

**Txarama inguruan.** 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin.

Oso egoera onean.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta 2

bainugela. Egongela ederra.

Ezin hobeto!

**Tolosa.** Erdialdean. Guztiz berrieta.

3 logela, sukaldea, egongela eta

bainugela. Igogailuarekin eta

berokuntzarekin. 306.517 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean.

Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin.

Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 126

m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berrieta, 4 logela, 2

bainugela. Kanpoaldera, altua.

Berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120 m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna

alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidea. Garajea

alokairuan.

**Villabona.** Ebeondo. Pisu

garajearekin. Pisu, 3 logela eta 2

bainugelarekin.

**Villabona.** Eraikuntza berrian 2

logela, sukaldea, egongela eta

bainugela. Garajea aukeran.

**Villabona.** Kale Berria. 2 logela,

sukaldea, egongela eta bainugela.

Erabat berrieta. Berokuntzarekin.

**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko

80 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Garajea

aukeran.

**Villabona.** Kale Berria. 30 m<sup>2</sup>-ko

garajea ibxia salmantan.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 18a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



beroena

17

hotzena

14

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Kultur Astearen baitan, argazki lehiaketa antolatu dute. Bihar da lanak aurkezteko azken eguna; Kultur eta Kirol Etxera jo behar da horretarako, 15:00etatik 21:00etara.

**Amezketak.** EHNA tramitatzeko aukera, udaletxean.

**Anoeta-irura.** Anoetako eta Iruako udalek autodefentsa ikastaroa antolatu dute. Gaur amaituko da izen-ematea, eta horretarako bi udaletxeetako batera jo behar da. Gaur bertan, 18:00etan, bilera izango da Iruako udaletxean ordeztegia zehazteko.

**Elduain.** Gripearen aurkako txertoa, 12:00etan. Egun horretan ezin dutenek egunero dute Ibarra, Berastegin eta Lizartzan erizainaren kontsultan txertoa hartzeko aukera, beti alde zuzenetik ordua eskaturik 943 67 24 11 telefono zenbakian (Ibarra).

**Tolosaldea.** Hilaren 23an Arantzazura joateko autobusa antolatu dute. 09:00etan Asteasutik abiatuko da, eta Villabonan, Iruan, Anoetan eta Tolosan geldituko da. Itzulera 19:00ak aldera izango da. Izena eman nahi duenak 943 65 27 00 telefono zenbakira (Arantxa) deitu behar du lehenbailehen.

**Villabona.** Hilaren 23an, igandea, XVIII. Finalistaren Eguna izango da, Amasa eta Villabona arteko bi ordu eta erdiko ibilaldi batekin. Opariak eta jokoak izango dira, halaber. Izena Aizkardi mendi elkartearen eman behar da, etzi baino lehen.

**Zizurkil.** Hilaren 28rako Iraberri irteera antolatu du Elizpe jubilatutako elkarteak. Lizarrako museo bisitatu dute, eta bazkaria Irabe hotelean izango dute; ondoren, bingo, opariak eta dantzaldia izango dira. Izen-ematea, bihar, etzi eta ostiralean, elkartearen



## Kubari buruzko marrazki erakusketa

**TOLOSA** ▶ Amigos de Cuba y p'álante elkarteak Kubari buruzko marrazki erakusketa jarri berri du, Tolosako Kultur Etxean. Atzo bertan zabaldu zituen ateak erakusketak, eta aste osoan izango da kubatarrek egindako lanak kusteak aukera bertan. I. GARCIA

bertan, 17:00etatik 19:00etara. 20 euro balio du txangoak.  
**Zizurkil.** Zizurkilgo Udaleko Euskara sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearentzat Teodoro Hernandez IV. Ipuin Lehiaketaren deialdi egin du. Informazioa eta izen-ematea, Zizurkilgo udaletxean. Lanak bertan entregatu behar dira azaroaren 28rako.

### ERAKUSKETAK

**Larraul.** Laura San Juan artistaren zen margolanen erakusketa. Hilaren amaierara arte, Herri Ostatuan.  
**Tolosa.** Ipuinartean I egitasmoaren erakusketa Azaroaren 5a arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Tolosan bizi den Hector

Luna pintore ekuadortarrak bere artelanak jarri ditu ikusgai Lanbroa tabernan. Hilaren amaierara arte izango dira bertan.  
**Villabona.** Luis Maria Nuñez, Agurtzane Nuñez eta Amaia Nuñez margolarien koadro erakusketa ikusgai da, hilaren 23a arte, Atxulondo kultur etxean.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

**Alegia.** Erick Zonca zuzendariaren *La vida soñada de los angeles* filma, zine-klubean. Bihar, 21:30ean, Gaztebtxean.  
**Tolosa.** Iñaki Edrosoren *Ahagar amets bat izan nuen* diaporama, basamortuari buruz. 19:30ean, auzo elkartearen. Tonttor San Esteban auzokide kultur elkarteak

antolatuta, Kultur Astearen baitan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Tolosa.** Ebebeste, J. M. Gemikako arbola, 3. 943 65 10 40.

### IRRATIA

**Txolarre irratia (107.5 eta 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; HITZaren errepassoa, oharra... 12:15ean, agenda; elkarrizketak, iritziak, albisteak...; 13:00etan, *Ezkutuko koloreak* irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa, erreplikapena.  
22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## GALTZAUNDI ▶



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 221.a (2005eko urriaren 7a).  
**Orrialdeak.** 24.  
**Tirada.** 5.000 ale.  
**Gai nagusia.** *Gazteak munduari begira:* Tolosaldeko gazteekin solasean.  
**Beste gaiak.** Joxe Mari Aranalde gogoan, Carlos Peñaren errekorra, *Jarri sasoiari korrika* liburua, AHT, Bertsolari Txapelketa...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.  
▶ 943 65 50 04.  
▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
▶ www.galtzaundi.com

## AIURRI ▶



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 242.a (2005eko urriaren 7a).  
**Orrialdeak.** 20.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** *Bertsolaritzaren Olinpiadak.*  
**Beste gaiak.** Onddolar plataforma (Amasa-Villabona), Asteasuko kiroldegiko eskaintza, Unai Urreaga billabonatarra Euskadi Irratian, Nerea Barriola kantu ikasle zizurkildarra...  
**Argitaratzailea.** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.  
▶ Kale Berria 47, 3. esk.  
▶ 943 69 64 50  
▶ aiurri@topagunea.com  
▶ www.aiurri.com

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Olatz Otezabal.

Gaur 25 urte.

Zorionak familiako partetik.



**URTE ASKOAN**

Maria Esnaola (Lizartza). Gaur 90 urte.

Zorionak familia guztiaren partetik. Hain bikorra eta alai seg dezazu. Mouu handi bat.

# HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!